

2019an alorraren batez bestekoa baino **bilakaera konparatibo hobea izan du**, eta negozioko adierazle nagusietan **kuota irabaztea** lortu du

Kutxabankek % 6 handitu du irabazi garbia, guztira 352,2 milioi euro

- **Negoio sareko mailegu-inbertsio produktiboa % 2,3 hazi da. Hipoteka mailegu berriek % 24,3ko gorakada izan dute, % 12,3koa mailegurako kontsumoek eta % 1,6koa enpresen finantzazioak**
- **Balantzetik kanpoko baliabideek aurreikuspenak hobetu dituzte. Inbertsio fondoak bolumenari eta errentagarritasunari dagokienez alorraren buruan ezarri dira, eta BGAEtan lidergoa indartu du**
- **Zerbitzuen eta aseguruaren sarrerek ekarpen egonkorra izan dute berriro: 141 milioi aseguruetan, % 4 gehiago**
- **Salmenta digitalak bikoiztu egin dira, 167 milioi eragiketa egin ostean, eta bezeroen % 43 funtsean online bakarrik aritzen da**
- **Berankortasun tasa alorreko txikienetako bat da, % 2,98koa, zalantzazko aktiboak 364 milioitan murriztu ondoren**
- **Kaudimen osoa eta Core Tier I ratioa % 17,2ra heldu dira, kaudimenean lider izaten jarraitzen du eta kudeaketako adierazle nagusietan zituen aurreikuspenak bete ditu**
- **Garapen jasangarriaren alde egin duen apustua sendotu eta 1.000 milioi inguru bideratu ditu Bankuak finantzazio 'berdera'**
- **Dibidenduaren banaketa irabazien % 50ekoa izaten jarraitzeko asmoa du, guztira 176,1 milioi euro, 725 milioi euro bost urtetan**

2020ko otsailaren 29an. Kutxabank Taldeak 2019. urtea **352,2 milioi** euroko mozkin garbi trinkoarekin amaitzea lortu du, aurreko urtean lortutako irabazia **% 6** handituta, beraz. Erakundeak, gainera, urterako zituen aurreikuspenak hobetu ditu. Cajasurrek emaitzen kontura **22 milioi**ko ekarpena egin du.

Erakundeko zuzendaritza taldeak Gasteizko Europa Biltzar-Jauregian izan duen bileran aurkeztu dute 2019ko jardueraren balantzea, gaur goizean. Bilera honetan Gregorio Villalabeitia Presidenteak eta Javier García Lurueña Kontseilari Delegatuak ekitaldiko gertaera nagusiak aztertu ondoren, aurtan izango dituzten helburuak finkatu dituzte.

Gregorio Villalabeitiak Kutxabankek lortutako emaitza iraunkorraren sendotasuna azpimarratu du, ekonomia moteldu arren eta ziurgabetasun geopolitiko ugari gertatu arren. Testuinguru honetan, burtsek positiboan amaitu dute ekitaldia, baina interes tipoak negatiboan mantendu izanak finantza-alorrak zituen aurreikuspenak desbideratu ditu.

Kutxabankeko Presidenteak bankuaren adierazle nagusiek **alorrarekin alderatuta** izan duten **bilakaera hobea** goratu du, gainerako banka-alorrak 'core' produktuetan izaniko emaitzak gainditu baitira, hala nola **hipoteka** berrietan, **kontsumorako maileguetan**, **zorro delegatuetan**, **inbertsio fondoetan**, **pentsio planetan zein BGAEtan**, edota **enpresentzako finantzazio berrian**. Negozio ereduaren sendotasun honi esker, finantza Taldeak aritzen den merkatu guztietan kuota hobetzea lortu du.

Negozioak 2019an izan duen bilakaerari buruz, Kontseilari Delegatuak azpimarratu du **mailegu-inbertsio produktiboa** aurreko urtearen aldean hazi egin dela, eta **interes marjina lortu den** igoera eragon du, tipoen kurbak presio handia eragin arren. **Zerbitzuen eta aseguruaren sarrerek** izan duten bilakaera positiboa goretsi du, emaitzen kontuari ekarpen errepikaria eta egonkorra egiten baitiote.

Bankuak **kapitala sortzeko duen gaitasuna** ere aipatu du, oinarriko 787 puntu hobea baita Erakundea sortuz zenetik. Kapital hau **era organikoan eta metodologia estandarra** jarraituz hobetu da, gainera. Gainera, **berankortasuna % 2,98ra** murriztu da, finantza erakunde guztien artean tasa baxuenetako bat da.

Merkatu-kuoten hobekuntza


Bezereen negozioa urte osoan zehar hazi egin da, hein handi batean sareen jarduera komertziala oso bizi izan baita. Horregatik, 'core' negozioetan kontratazioen bolumena nabarmen handitu da, eta produktu erabakigarrietan **merkatu kuoten hobekuntza garbia** sumatu da.

Honek azaltzen du **'core' sarrerek % 1,9** igo izana, zerbitzuen eta aseguruaren negozioak izan duten bilakaera positibo eta egonkorrari gehituta. Guztira **1.077,2 milioi** eurora iritsi dira sarrerok.

Palanka hauei kostuei eusteko ohikoa den **zuhurtziazko politika** batu zaie, bai eta **arriskuaren kalitatea hobetu** ondoren **zuzkiduretarako beharrak txikiagoak** izatea ere. Beti ere, erakundearen helburu nagusia eraginkortasuna da.

Produktu nagusietan merkatu kuota

(xx op) Hazkundera YoY



Bezeroen baliabideek aurreikuspenak gainditu dituzte

Kudeatutako Bezeroen Baliabideen hazkundera **65.738 milioi** eurora igo da (**% 7,6 gehiago**), eta 2019ko alderdirik esanguratsuenetako bat izan da, ekitaldirako finkatutako aurreikuspenak nahiz merkatuak berak bolumenean eta errentagarritasunean izan duen bilakaera gainditu baitira. Horrela, Kutxabank urtean zehar **inbertsio fondoetan harpidetza garbi** gehien dituen **hirugarren** erakundera izan da, **diru-zorro eskuordetuak dituzten bezeroen** kopuruan **bigarren** erakundera eta **errentagarritasun haztatu onena** duena.

Bezeroen gordailuak % 6,4 hazi dira, **ageriko gordailuen** portaera bikainean oinarrituta, **% 10,7** egin baitute aurrera.

Bezeroek balantzetik kanpoko produktuekiko duten aldeko jarrerari eutsi zaio, errentagarritasun erakargarriagoak bilatze aldera. **Inbertsio-fondoei** eta **pentsio-planei** eta **BGAE-ei** egindako **ekarpen garbiak** nabarmen hazi dira, **% 12,6** eta **% 9,7**, hurrenez hurren. Horrela, balantzetik kanpoko baliabideen guztirakoa **% 11,3** hazi da.

Zorroak kudeatzeko sistema delegatuak, non Kutxabank banku liderra den duela 13 urtetik, funtsezko papera jokatu du berriz ere. Erakundeak inbertsio eta aurreikuspen fondoan alde egindako apustu irmoaren ondorioz, Kutxabank Gestioneak eta Finecok egindako lan bikainarekin batera, Kutxabank **bosgarren talderik handiena** izan da **ondare kudeatuan, laugarrena aurreikuspen sistemetan**, eta merkatu-kuota irabazi du berriro ere.

Epigrafe honetan, nabarmentzekoa da **Baskepensiones BGAEk** erregistratutako bilakaera, banakako aurreikuspeneko produktuen euskal merkatuan bere lidergo argia finkatu baitu, **% 47,2ko** kuotarekin, **5.685 milioi** euroko ondare kudeatuarekin -2018an baino **% 8,3** gehiago-, eta **273.000 bazkide** baino gehiagorekin.

Kreditu-inbertsio produktiboaren hazkunde nabarmena


Txikizkako sarearen **kreditu-inbertsio produktiboa** nabarmen hazi da, % 2, eta 2012tik lehen aldiz, sarearen orotarako kreditu-inbertsioa positiboan dago.

Zalantzarik gabe, ekitaldiko alderdirik deigarrienetako bat **hipoteka maileguen** kontratazioetan izandako % **24,3ko** igoera izan da. Horri esker, Kutxabankek merkatua gainditu du bere jarduera garatzen duen lurralde guztietan, eta bere hipoteka-kuota sareko kuotaren oso gainetik jarri du, hau da, % **8,2 Espainian**, % **13,1 Andaluzian** eta % **47,4** oso azpimarragarria **Euskadin**. Hipoteka mailegu berrien kopuru osoa 3.224 milioi eurokoa da, finantza erakunde guztien artean hirugarren lekua.

Kontsumorako maileguen kontratazioak ere % **12,3ko** garapen positiboa izan du, eta bereziki '**Merkataritza Kreditua**', 2019an % **41era** igo baita, betiere kreditua arduraz esleitzeko eredu bati jarraiki.

Handizkako sarearen inbertsio produktiboa, bere aldetik, % **3,2** hazi da, banka korporatiboaren eta erakundeen negozioa euskarri hartuta.

2019an zehar, likidezia-posizio ona ikusi da bezero diren enpresetan, eta horrek, ziurgabetasun orokorrarekin batera, inbertsio-ekimen jakin batzuk geldiarazi ditu. Hala ere, enpresa horien loturak hazten jarraitu du, eta beste produktu batzuen kontratazioa ere hazi egin da, aseguruena, esaterako.



Emaizen kontua

Interes tipoek negatiboan jarraitu dute, urtebeteko Euriborra 2019ko amaieran % -0,261en kokatuta zegoen. Hala eta guztiz ere, aipagarria da Kutxabanken Interesen Marjinak hobetzen jarraitu duela, jarraian hirugarren urtez hazi egin baita, % 1,3 zehazki, eta guztira **568,6 milioi** euro lortu ditu.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2019ko abenduan

Milioi euro	2019 abendua	% Δ
Interesen Marjina	568,6	1,3
Komisioak eta aseguruak	508,7	2,6
Banka negozioaren sarrera errepikariak	1.077,2	1,9
Dibidenduak eta baliokidetasuna	65,7	-12,1
FOE	11,6	65,4
Beste Ustiapen Emaitzak	-57,8	15,4
Marjina Gordina	1.096,8	0,7
Administrazio Gastuak	-600,4	0,9
Amortizazioak	-59,2	7,2
Ustiapen Marjina	437,1	-0,3
Saneamenduak eta narriadurak	-139,9	-24,4
Bestelako irabazi eta galerak	115,8	-24,5
Zergak eta bestelakoak	-60,8	-18,0
Taldearen emaitza	352,2	6,0

Zerbitzuen sarrerak **394,5 milioi** eurokoak izan dira, aurreko urtean baino % 2,3 handiagoak. Hazkunde hau finantza-merkatuen bilakaera onean eta jarduera komertzialaren bizitasunean oinarritu da, hala nola zorro delegatuetan, inbertsio fondoetan, pensio planetan eta BGAEtan lortu diren hazkundeetan. Igoera hauei **aseguruen negozioak** beti bezala eman duen bultzada gehitu zaie, alor honek marjina gordinari **141 milioi** euroko ekarpena egin baitio, aurreko urtean baino % 4 handiagoa. Aipagarria da banka-negozioaren sarrera errepikarien ia % 50 zerbitzuen sarreraren epigrafean sortzen dela, interes tipoen bilakaera negatibotik at.

139,9 milioi euro zuzkiduretara

Partaidetuen zorroak emaitzetan izan ohi duen eraginak beti bezain indartsua izaten jarraitu du. Dibidenduek eta bazkide diren enpresek sortutako emaitza errepikariez gain, Euskaltelen partaidetza balioan jarri izanak 2019. ekitaldian 150 milioi euroak gainditzea ahalbidetu dute.

Finantza Operazioen Emaidzak 11,6 milioi eurokoak izan dira. Honela, **Marjina Gordina 1.096,8 milioi** eurotan kokatu da, % 0,7ko hazkunde arina lortuta.

Administrazio Gastuei eusteko irizpideak ezarri dira betiko legez, eta % 0,9 hazi dira, kostuak murriztu eta baliabideen erabilera hobetzeko politikaren ondorioz, erakundearen helburu estrategikoetako bat eraginkortasunaren kudeaketa baita. **Amortizazioen** partida % **7,2** hazi da, Taldea digitalizazioaren alorrean inbertsio esanguratsuak egiten ari baita.

Mailegu-zorroaren eta beste aktiboen **saneamendu-mailari** dagokienez, maileguen eta higiezinaren arriskua estaltzeko zuhurtziazko mailari eutsi zaio berriro, arrisku hauen kalitatea hobetu arren eta aurreko urteetan ere ahalegin nabarmenak eginak ziren arren. Horregatik, zuzkiduretara **139,9 milioi** euro bideratu dira, erakundearen etorkizunari eta araudiaren ikuspegitik dagoen eskakizun-maila handiari erantzuteko.

Emaitzen fiskalitatea aintzat hartu ostean, Taldearen irabazi trinkoa **352,2 milioi** eurokoa izan da, 2018an baino % **6** handiagoa.

Kutxabanken Administrazio Batzordeak **dibidendua** urteko emaitzen % 50ean mantentzeko proposamena helarazi dio Akziodunen Batzar Nagusiari, guztira **176,1 milioi euro**. Azken bost urteetan Kutxabankek **725 milioi** eurotik gora banatu ditu BBK, Kutxa eta Vital Banka Fundazioen artean.


Berankortasuna alor osoko baxuenetako bat da

Ekitaldiko ezaugarri nagusietakoa berankortasunaren murrizketa izan da. Zalantzazko aktiboak 364 milioi eurotan jaitsi dira, eta ondorioz Kutxabank Taldearen berankortasun ratioa hobetu egin da. Gertakizun dauden arriskuak aintzat izanik % **2,98an** kokatu da, 2018ko urte amaieran baino **oinarriko 88** puntu beherago. Deigarria izan da **mailegu pertsonalen eta kontsumorako maileguen** alorrean berandutzeak izaniko bilakaera, % **1,08koa** baita, hipoteketan baino are txikiagoa.


Honela baieztatzen da Kutxabankekin finantza-alorrean nagusi den batez bestekoa baino mailegu-kalitate hobea duela. Gainera tasa hau % 2,47ra arte hobetuko du aurki, 2020. urtean zehar Lezama operazioaren eragin osoa barneratzen duenean. Operazio honetan zalantzazko maileguen zorro bat saldu zuen Bankuak abenduan, guztira 358 milioi euroko balioarekin.

Berankortasunaren eta zalantzazko aktiboaren bilakaera

Berankortasun ratioaren bilakaera(%)



Zalantzazko aktiboaren bilakaera (mila miliotan)



Berankortasun ratioak hobetzeaz gain, kudeaketa adierazle nagusietan 2019rako zeuzkan helburuak gainditzea lortu du Kutxabank Taldeak. Abenduaren amaieran, kaudimen osoa eta Core Tier I ratioa % 17,2koak ziren. 'Fully Loaded' bertsioan indize hau % 16,9an kokatu da. Palankatze ratioak Estatuko onena izaten jarraitu du, % 8,6koa alegia, alorraren batez bestekoaren oso gaineratik. Bosgarren urtez jarraian, sistema osoko kaudimen onena duen erakundea izaten jarraitu du Kutxabankek, Europako Banka Agintaritzak (EBA) argitaratutako gardentasun txostenaren arabera.

Adierazle nagusiak	2018	2019
Berankortasun Ratioa	% 3,86	% 2,98
ROTE	% 6,8	% 7,0
ROA	% 0,57	% 0,59
Core Tier I (Phased in)	% 16,1	% 17,2
Core Tier I (Fully Loaded)	% 15,5	% 16,9
Kapital osoa	% 16,1	% 17,2
Palankatze ratioa	% 8,1	% 8,6

Bere buruari ezarritako helburuen haritik, errentagarritasun ratioak hobetzen jarraitu du Kutxabankek. Inbertitutako fondoaren arabera akziodunek jasotako errendimendua erakusten duen ROTE ratioa % 7an kokatu da, aurreko ekitaldiko % 6,8ko indizea hobetuta.

Salmenta digitalen kopurua bikoiztu egin da

Kutxabank Taldeak irtenbide teknologiko berriak gaitzearen eta bere bezeroen esperientzia digitala hobetzearen alde egindako apustuak isla nabarmena izan du **online negozioaren** hazkunde handian, 2019an **bikoitza baino gehiago** hazi baita haren eragiketa kopurua.

Gero eta gehiago dira irtenbide teknologikoen bidez kontratatzen eta kudeatzen ari diren produktu eta zerbitzuak. Horixe da hipoteka maileguen kasua. Kutxabankek urtean zehar Hedapen eremuetan harpidetutako hipoteken % 18,3 online tresnetako baten bitartez sortu da.

Mailegu pertsonalen arloan, kanal digitalen bidezko kontratazioen hazkundera % **70ekoa** izan da, besteak beste, horiek formalizatu ahal izateak edo ordainketak mugikorretik atzeratzeak dakarren aurrerapenagatik. Horrela, **Flexibuy** formularen % **13ko** hazkundera nabarmentzen da.

Kutxabank Taldeak agenda digital bizia izan du 2019an zehar, online jarduten duten bezeroen kopurua handitzeko eta eragiketak eta funtsezko produktuen salmentak sustatzeko helburuz. Azken ekitaldian, batez ere 'online' jarduten duten **erabiltzaile digitalen** kopurua % **43ra** igo da.

2019an, irtenbide digital berriak jarri dira abian, hala nola Banka Mugikorreko **finantza-agregatzailea**, beste banku batzuetako kontuak eta txartelak kontsultatzeko aukera ematen duena, baita mugikorraren bitartez **aurreikuspen-planak kontratatzeko** aukera ere.

Laguntza-bide berriak gaitu dira, hala nola **txata** sartzea **online bankan** eta **onboarding digitala**, banku-kontu berri bat irekitzea, % 100 baliabide digitalen bidez, telefono mugikorretik.

Ordainbideetan ere nabarmen zabaltzen ari da etengabeko berrikuntza, Internetera konektatutako *smartphone*-ak eskuragarritasun ia unibertsala eskaintzen baitu. Kutxabank Taldeak mugikorretarako dituen aplikazioak hobetzen jarraitu du, eta **Apple Pay**, **Google Pay** eta **Samsung Pay** ordainketetarako aplikazioak integratu ditu.

Jasangarritasunaren aldeko apustu irmoa

Kutxabankek aurrera egin du 2019an, Taldearen jarduera osoan jasangarritasuna zeharka finkatzen jarraitzeko helburu estrategikoan. Horretarako, **ESGko zuzendaritza** berria sortu du, erakundearen barruan garapen jasangarriarekin zerikusia duten alderdiak kudeatu ditzan.

Finantzaketaren arloan, **ekonomia berdean** sartutako inbertsioak bultzatzen ditu, energia berriztagarriak sortzeko ekimenak garatzen dituzten edo trantsizio ekologikoa sustatzen duten proiektuak babesten baititu. 2019an **1.000 milioi euro** inguru bideratu ditu mota horretako ekimenetara, abaletan eta finantzaketan. Gainera, Kutxabankek 166 milioi⁰ baino gehiago bideratu ditu energetikoki eraginkorrak diren ibilgailuen eta etxetresna elektrikoaren

erosketa finantzatzera, egoera ahulean dauden kolektiboek laguntzeko proiektuetara edo BOEak erosi eta eraikitzen.

Gainera, bere sukurtsalen eta instalazio zentralen kontsumo elektrikoak eragindako karbono-aztarna zerora murriztu du, instalazio fotovoltaiko batetik datorren elektrizitate berdeaz baino ez baita hornitzen, eta Taldeak inbertitzen dituen aktiboetan sozialki arduratsuak diren inbertsio-alderdiak gehitzen jarraitu du.

Kutxabank Taldeak aurrezki eta aurreikuspen produktuetan egiten dituen **inbertsio guztiak sozialki arduratsuak diren irizpideen** arabera garatzen dira, eta, beraz, bere jardueraren eremuan giza eskubideekiko errespetua, ingurumenaren zaintza, Gobernu Onerako Politiken praktikak eta zerga-arloko jardunbide egokiak betetzen eta sustatzen dituztela ziurtatzen da.